

Jardunaldia: "Gazte lokalak: horien erabilpenerako eta giza bitartekaritzarako udal jarduketak"

Azaroaren 14a, osteguna. EUDEL (Bilbo, Ertzilla kalea 13)
EUDELek eta Arartekoak antolatuta

Hartzaileak: udaletako arduradun politikoak eta talde teknikoak, Gazteria eta Herritarren Partaidetzarako Saisetakoak batez ere.

Helburua:

Euskal udalei erreferentziazko **adibideak** ematea EAEn gazteen lonjak erabiltzeko udalek egindako araudi eta antolamenduei buruz, baita lonja horiek hiri-ingurunera egindako egokitzapenaren eta gazte erabiltzaileen eta auzoko komunitateen arteko bitartekaritzaren ingurukoei buruzkoak ere.

Testuingurua:

Merkataritza-lokalak gero eta gehiago erabiltzen dira gazteak elkartzeko eta aisialdirako lokal gisa gure udalerrietan. EAEn egindako zenbait ikerketek azaltzen dutenaren arabera, lokalen erabilpen mota hau sendotze-fasean dago elkartzeko eta aisialdirako lehentasunezko eremu bezala euskal gazteen artean.

Fenomeno honek eztabaidak sortu ditu, alde batetik, aisialdirako jarduera honen egokitzapenari buruz ingurunera, segurtasunera eta lokalen arriskuen prebentziora, eta bestetik, auzoko komunitateekiko harremanetan nola eragiten duenari buruz.

Arazo guzti hauen analisi zehatza egin ahal izateko, Arartekoak ofiziozko espediente bat hasi du, gazteen aisialdirako jarduera berri honen testuinguru sozial eta juridikoaren inguruko informazioa biltzeko, baita esparru honetako udal jarduketako aukera ezberdinen inguruko informazioa ere. Hau guztia gaiaren inguruko irizpide eta printzipio orokor batzuk ezarri ahal izateko helburuarekin.

Esperientziak:

- **Vitoria-Gasteiz:** gazte lokalen inguruko ikerketa eta gazteen lonjentzako gomendio gida.
- **Portugalete:** "gazteak eta lonjak: leku komunak" proiektuak (lonjen mapa, tartean dauden eragile ezberdinekin egindako elkarlana eta protokoloa udaltzaingoarekin.
- **Gernika-Lumo:** "Lonjakidetza", udaletxearen, gazteen, auzokideen eta jabeen artean adostutako udal ordenantza.
- **Abanto-Zierbena:** udalerriko 18 eta 30 urte bitarteko gazteez osatutako lagun-taldean aisialdirako lokalen eskaintza.
- **Elgoibar:** gazte-lokalen erabileran eta udal ordenantzetan adostasuna lortzeko prozesu parte-hartzailea.

EGITARAUA

Osteguna, 2013ko azaroaren 14

10:00-10:30 Marko orokorra eta Jardunaldiaren testuingurua
Eudelen eta Arartekoaren ordezkariak

10:30-12:00 UDAL ESPERIENTZIAK
Udalen mahai-ingurua

- **Vitoria-Gasteiz:** [Gomendioen Ikerketa eta Gida](#)
- **Portugalete:** ["Gazteak eta lonjak" Programa](#) eta [Gazte Lokalen Mapa](#)
- **Gernika-Lumo:** [Gernika-Lumoko lonjen ordenantza](#)
- **Abanto-Zierbena:** [Aisialdirako lokalen eskaintza](#)
- **Elgoibar:** [Prozesu parte-hartzailea eta udal ordenantzak](#)

12.00-Atsedena

12.15-12.45: GOGOETA (bertaratutako udalen artean):

Arazoen azalpena, gomendioak eta konponbiderako proposamenak.

Bertaratutako jendeari irekitako eztabaida. Dinamizazioa: Eudel eta Arartekoaren arduradun teknikoak.

12:45-13:15: AMAIERAKO ONDORIOAK Jardunaldi honetan lortutako ekarpenak Arartekoak egindako ondorio txosten batean aztertutak izango dira.